BAGILLA-JUNIO
13
Egubaztena - Miercoles
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA

Bilbao'kua... ...	6,00	Irko.	Iru lle
Bilbao'atazkua	7,50	"	"
Idazki-Itunmena	62,00	"	urtez
Atzarrijetakuak	100,00	"	"

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banatolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.711 zenbakija

Egunekua

¡Zer ikusi biar ete-dogu...!

Eŕekea naikua nastauta dagola dirudi, ta eŕeka nastauan aŕauntzan egin gurako aŕaintzale askotxu dagozala.

Nastauta dabilan eŕekea, zorijonez, ezta geuria, Ebro-arantza istabua daukana baño

Nastauta ta zikinduta aurkitzen dan eŕeka ori, españaŕak eta España-zaliak, Gaztela altsuba deituten dautsen abeŕija da, gaztelaŕen aburuz ludi gustira gixabidia eruan ixan daben Gaztela abeŕi ikasija (?)

卐 卐 卐

Lanik eztagola diñue. Eta lanik eza bide dala, gixaŕterik ezdija gosiak il biaŕ dabela.

Eta ludi gustira gixabidia eruan ixan daben Gaztela'ren seme argijok (?), lanik -eza atonduteko, lana daukenai ta lan-egin gura dabenai, lan-egiten galazo egiten dautse. Gosez dagozanai gosia kentzeko, baŕiz, gari-soluak-eta, enparauko uzta edeŕak, soluetan alpeŕik galtzen lagaerazo.

¿Lanari opoŕa egiñaz, lana ugariŕu egingo ete-da? Eta soluetako uzta edeŕak soluetatik kendu baŕik bertan ustelduten istiaz, ¿ogija merkatu egingo ete-da? Gosez dagozanari ogija eruateko biderik labuŕena, ¿ori ete-da?

Ludi gustira gixabidia eruan eban Gaztela'ren seme argijak (?) alantxe uste dabe.

España'ko zozolistuak oŕetan dabiltz: lana ugariŕuteko, lanari sutoska, lanari tiroka. Ogija merkatuteko, lanik egin gura-ezta. Gosia kentzeko, ogijak eŕekara jauŕtiten...

Eta onetara oldoztuten dabenak, Gaztela'tzaz gauza aundijak esaten dabez. Europa'ko eŕirik jakintsubena dala... Ludi gustira gixabidia eruan eban eŕi ikasija dala... eta abaŕ.

卐 卐 卐

Eŕiketea bide dala, alderdijak - alderdi soŕtu dira, ta eŕeka nastauan aŕauntzan egiteko geŕteu.

Aŕaintzaŕerik geyenak, baña, aŕauntza -ixontziko lema-zain ixan gura ŕeukie.

Gil Robles dala, naiz Valiente ixan, aŕain-sariei tiraka baño, lemeari eskuba ezaŕiŕa egotia atsegiñgo yake.

Gustijak, agintzeko geŕtu. Otsein ixateko, iñortxu bez.

Romanones'ek itz dagi, ta ondiño zati baten be aginpidian dagon jauŕkuna eztala jausiko diño.

Oraingo naste au atonduteko, baña, auteskunde baŕijak biaŕekuak diralakua ageŕtuten dau. Auteskunde baŕijetan ei -dago, ba, España'ren ixan eta ixateko gustija.

Romanones'ek, biaŕba, uŕengo auteskundietan, bakaldaŕen garaitzea ikusiko dau. Eta bakaldaŕen garaitzean, España'ren zorijona (?).

Romanones'en buruaustiak ezkaŕubez bape artegatuten, aren buruaustiak guriekandik ufun dabiltzalako.

Guk, euzkotaŕ abeŕtzaliok, España'rena baño ienago, Euzkadi'ren zorijona loŕtu gura dogu

Ez auzokuari goŕotua dautsagulako, etxekua maŕe be maŕe dogulako baño. Euzkadi geuria da, ba.

Eta geuria dalako, bere zorijona gura dogu.

卐 卐 卐

Geure abeŕijarentzak gura dogun zorijon au, ¿zeŕan loŕtuteko?

¿Emengo bakaldaŕak-eta, abaŕ, gura daben lez, España'ŕak azkatu eziñik dabiltzan matasia azkatuteko, euren aŕtian nastauta ibiliiaz?

Ez. España'ŕakin nastauta gabiltzan aŕtian, Euzkadi'rentzat zorijonik eztogu loŕtuko. España Euzkadi'rentzat gexo txaŕ bat lez da, ba, osakai berezijen bidez uxaturazo biaŕ yakan gexo ilkoŕa.

España'ren nastiak, España'ŕak atonduteko laga dagiguzan, ba, Gaztelaŕ-ŕugiñak dagijezan opoŕ, gixa-eraiŕe ta matxiñadetan, geu ezkaŕezala nastau, gaztelaŕen aŕteko naste oŕeik, guretzat, napaŕei-gexua baxen ondoren txaŕekuak litzakez-ta.

卐 卐 卐

¿España'ren zorijona, bakaldaŕak jauŕkuneko ixatian dagola?

Olan ba-da, bakaldaŕak autetsi dagijezala, ta zorijonekuak ixango dira.

¿España'ren zorijona, Gil Robles'en eskubetan dagola?

Olan ba-da, Gil-Robles'en eskubetara juan daŕezala.

¿España'ren zorijona, Prieto'ren "kalabazan" aurkitzen dala?

Olan ba-da, Prieto'ren "kalabazan" baŕuban saŕtu daŕezala.

Baña guri, euzkotaŕoi, geldi laga dagiskubela, ta euren zorijona eurentzako gorde dagijela.

Guri geure etxian bixiŕen lagaten ba -deuskube, geuretzako zorija, geure etxian ixango dogu Euzkadi geure abeŕi maŕian.

Euzkadi'ren zorija, euzkotaŕogan bakaŕik idoro leikena da.

Euzkadi'ren zorija, bere euzko-ede berezija landu ta erabiltian dago; euzko -dantza ta jolas garbijak ugariŕutian; euzko-kirolak joriŕu ta ludi-ziaŕ erakustian; euzko-edestija ondo ikastian, ¡bene -benetan abeŕtzaletutian...!

Euzkadi'ren zorijona, gaztelaŕakin ezetan be nastau barik bixiŕian dago, gaztelaŕakin aŕtu-emon txikijenik be ez eukitian.

卐 卐 卐

Gaztelaŕak Gaztela'n, eta euzkotaŕak Euzkadi'n bixiŕian. Gaztelaŕak eŕbestekotzat eukiŕian irakuŕle...

¿Espanaŕak nastauta dabiltzala...? ¿Eta guri zer?

"Aŕak semiak beriak dauz, eta berak goberneuko dauz"—esaten eban antxiña, "Mazmia" eritxon eskeko aguratxu zaŕak.

Beraz España'k be, bere semiak dagijezan nastiak, berak atondu dagizala, baña guri seme ez aide be ezkaran euzkotaŕoi geldi laga-ta.

URIBUTAŔTE'TAŔ IBON.

Donostiar Kaskarin ipuyak

Euskel-ipui zale, donostiaŕak beti izan gerala, zer esanik ez dago.

Ez ipui-zale bakaŕik, esanbe jatoŕak ere ezagutu ditugu. Ta noŕk ukatu, esanbe onak, berak sortutako ipuña esaten duanian, entzulien alaitasuna.

Orlakoxia zan bada, ipui-egile bikain, ta esanbe alaitsua zan Aŕtola'taŕ Joseba (G. B.) (Pepe Artola)euskeldun sutsu, donostiaŕ jatoŕ ta nere osaba maitia.

Euskel-ipuyak gorde biaŕ dirala ta, oŕa asmo ortaz emen ni berak doai zoragaŕiz esan, ta nola edo ala goguan aŕtuta, bere umore onari sortzagun ipui batekin.

卐 卐 卐

Etzan asaŕe noski. "Ikatz-kalean" bizi zan Iñixio Mai argiña, bere burua bizirik ikusi zuanean.

Lau tokian arizalarik aldamiota guzi, irugaŕen bizitzatik kalera erorita, etxeratu zutenean.

Ala ere naiko ez biaŕa berekin zeukan; zarko-ezuŕa txiki mila poŕu egiña zuben beintzat.

Bere oi auŕian aŕkitzen ziran, bere sendiaz gañera, etxe barunbeko maixtaŕ guziak, au egitia ona zala, oŕlakori deitzia obia, zala, ta danak beŕiketan, gaxoen añazeak eŕuki etzutelarik.

Orlako ez biaŕetan, beti izaten da beste guziak baño geyago dakiela uste duen bat edo bat, ta ordun bostgaŕen bizitzako Karolina, irurogei ta bost urteko neska zaŕa zan guzien buru.

"Etzazuela Donostiko mediku-rik ekaŕi —zuen Karolina'k— Klinika batera eraman, dirua naiko kendu, anka moztu, besterik ez dizue egingo ta. On Godofredo ezuŕ kenpuntzalien etxera juan obe dezute."

Ta esanda egin, onen asmo irten zan guzienen gañetik. Au eraman dute aŕatsalde aŕtan bertan gure Iñixio Mai ezur konpontzale oŕen uritxoa.

On Godofredo'k zerbait sakon azteŕtu ondoren, aŕpegiko ziñu txaŕ bat egiñaz dio.

—Zanko ezuŕa txirtxilatua dauka, ta ezur beŕia ezartzeko "operazio" bat egin biaŕian naiz.

Bai alaxen egin ere. Kordia kendu, zankua iriki, ta ezuŕ pixka ta ezuŕ aztaŕen guziak atera ondoren, garbi garbi egin da, jaŕi du lengo ezuŕen ordañez, leyaŕezko kutxa batian jasota zeuzkan ezurpila batetik aŕtuta, ezuŕ txuri txuri luxe bat.

Beŕiz zankoa itxi josi, lotu, ta bapo Iñaxio Mai sendakiñaren ustean.

Ez berak nai bezin laixteŕ baña, oñez asi zan beintzat ta, emen datoŕ Donosti'ra ezuŕ beŕia ankian zuala.

Lenengo makuluaz, ta gero makiltxo batez, txiŕi xaŕa kalerik kaŕe noiz-nai ikusten zan, bai zizaŕa eraten ere.

Etzan ordia alai Iñaxio Mai aŕgiña.

Auketik gero ta obetuago zijuan, baña pixa ezin egiña sortu zizayon, txixik ez egitea jakiña, sabela gero ta aundiago.

Oŕa beŕiz laŕi gure gizona. Zer ote zuen jakin nayan deitu dio sendakin ospetsu bati.

—"Idropesiya" daukazu dio sendakinak.

—¿Idropesiya? ta ¿ori zer da?

—Beda sabelian urak soŕtu zaizkizu.

—¿Neri urak sortu? Sagaŕdoa, ardoa ta patxaŕa besterik eraten ez det ta, urak sortu? ¡Au ere autu biaŕ geinkan! Bostgaŕen bizitzako Karolinak ziona egia zala, orduan bai txinistatu zuala, ta beŕiz ere onen esanari jardun egiñaz, juan dira lengo ezur konpontzalien etxera juan obe dezute."

Lendakin onek gizona aŕako sabel aundiaz ikusi-ta, eŕitan ekin dio esanaz ia zertan etoŕi diran aŕen gana, aŕek etzuela sabelik konpuntzen, ezuŕak baño.

—Ez azaŕatu On Godofredo dio Iñixio Mai'k, onera etoŕi ba gera, len anka konpondu dialako izan da.

—Ezdu ordia nik konpondutako ankakin, sabel aundi oŕek zer ikusirik.

—Bayetz esango nuke Godefredo jauna, anka konponduta une bereantxixa ezin egiña sortu zitzaitan beñepein ta.

Au entzun ta, sendagilearen aŕpegiko margoak bat batean aldatu ziran, ta arduntxe zerbait gogoratuta edo, geigo itzik egin gabe, laxteŕka, oso laŕi juan zan ezuŕak gordetzen zituen kutxa aŕtara, ta ezuŕari begiratu aldi baten ondoren, kaŕaxika dio.

—¡Edeŕa egin diat, edeŕa egin diat!

Bereala baretu zan, ta tximist aŕiak argi baŕio bezela, eldu kementsu len konpondutako Iñixio Mai'en anka ta luŕetik pixkabat altxata idukiaz, dio serio -serio.

—Ia orain pixik egiten dezun.

¿Egin? bai aŕano pola ¡ua eŕeka! ordu laŕden batian geldi'tu etzan, sabela ustu, ta beŕiz anka luŕian jaŕi zion aŕte.

—Oŕa eŕemeyua bilatu, Iñixio Mai; txixa egin nai dezunian, altxa anka pixkabat, ta nai aña egingo, dezu ta saŕi gañera.

—¿Anka altxata zer gertatzen da ba?

—Zer gertatuko da, utsa. Zauko ezuŕ beŕia jaŕi biaŕ ala ta, asto, mando, edo txeŕien ezuŕa jaŕi biaŕian, batere eŕepatu gabe, txakuŕaren ezuŕa jaŕi ez dizut ba, ta jakiña, zuk dakizun bezela, txakuŕak txix egiteko, anka altxatzen dute, ta txakuŕ ezuŕa dezun ezkero, zuk ere anka altxa ta egin biaŕ.

ATAŔENE.

Euzkotar umien aldez

DEYA

"Gizon bakoitzak dakaŕ jayotzean eginbiaŕen bat, gizon bakoitzat utzi oi du iltzean erantzupenen bat."

Madeleine Sophie Barat.

Gauŕko nere lan au gurasoentzat da, amaentzat batez-ere, deya buruz. Deya esaten detanean eŕderazko "vocación" esan nai det. Ez uste izan ordea moja edo praile juateko edo abade egiteko deya bakaŕik esan nai detanik itz onegaz.

Deya esaten detanean lagun bakoitzak geure baŕuan bein baño geyagotan nabaitu degun zerbaiterako gogoa, edo zaletasuna edo indaŕa, edo eŕaztasuna esan nai det.

Geure deya ez degu beti geuk beaŕ bezin argi entzuten batzuetan gastegiak izanik ezin igeŕi geinkelako deyaren durundia. Beste batzuetan geure burua ezagutzia gauzarik sailena ta gaitzena izaten zaigulako.

Baña danok dakigun gauza da geure deyari jaŕaitzeak eta erantzuteak duan gaŕantzia mundu onetan auŕera eŕteteko eta bakoitzak eman al degun onurak eman al izateko.

Ez da munduan jayotzen lagunik zertarako edo aŕtarako gauza ez danik. Geyenok ordea, lan batzuetarako gai izan eta beste batzuetara jotzen degu.

Zenbat eta zenbat mutiko menditaŕ, buru argidun ezagutu ditut, ingeniero izateko yayuak baña euren bizi guztian beste ŕanik erakutziko ez diotelako luŕagaz boŕokan egin biaŕko dutenak. Ez ba, basetxean ez dute seme ari ingenieruen kaŕera emateko okalondorik eta ezin eman.

Aren ordez, ardo saltzalearen semea, nola edo ala—aitak dirua dauka ba—sendagile egingo da. Sendagile diot, ez aŕk gaxorik sendatuko dualako baña izen ori izango dualako.

Aitak naikoa diru euki ta nola izan leike ba semea arotza, edo nekazaria, edo igeltzerua, edo mandazaya izatea? Dirudunen semeak iñongo kiŕtenik aundienak izan aŕen lege-gizonak, edo sendagileak, edo apaizak edo kaŕeradunak beintzat izan beaŕ dute.

Augaitik gabiltza gabiltzan eran gaxoak, auziak ditugunak, eta abaŕ.

Orain urte bi edo, egun batean Bilbao 'rako bultzian gizon bizartsu, iletsu, bekoki estu ta sabel aundidun batek galdetu ziran. —Zu altzera onelako lekutako irakaslea? Eta bayetz erantzundakoan. —"Neuk ere ba det alaba bat irakasletzarako ikasten—esan ziran. —Zenbatgaŕen uŕtean dezu?—gaŕdetu nion. Eta berak: —Urtiak ia asko. Lenengotan uŕte bitan Oviedo'ra juan zan eta kale izan zuan, gero Bilbao'ra eraman genduan eta an beste bi uŕte egin zituan, baña, osasunik ez edo, ta andik ekaŕi egin biaŕ izan genduan. Aŕezkero Gazteiz'en egin ditu iru uŕte ta orain Burgos'en daukagu. Gure eŕian bai dira nere alaba ez dala maistra egingo esaten dutenak, baña danen gañetik egingo da diruak balio ba'du. Zuk ondo dakizun bezela, diruak gauza asko egiten du ta.

—Bai orixe—erantzun nion, dirua zertarako da ba edozeñere zer nai kaŕera emateko ez izatekotan? Eta ez aldezu semerik ingenieru edo egiteko? Bai, semea bai det, baña aŕk naikoa du tabernako diru kaja zaitzea. Bere aitak bildu dituanak zaitzen ba'ditu izango du zerekin bizia kaŕera gabe ere—erantzun ziran aŕo.

Eta neure aŕtean oldoztu nuan: Ardo saltzale oŕen aŕaba ori noiz edo noiz irakasle izatera eltzen ba'da, laisteŕ jo beaŕ dirate beia Montessori, Dalton, Decroly Dewey ta beste batzuen erakusteko erak.

Irakasleren batek au irakuŕtzen ba'du ba'leike paŕe egitia, baña ez da paŕe egiteko gauza oŕelako baten eskuetan geure umetxoak utzi beaŕ izatea.

Jakintza gauzetarako danak ez dira gai izaten, eta edozeñek daki nolabaiteko ŕege-gizon, osagile, irakasle, abade, eta abaŕ izatekotan ez izatea obe dala, eta norberetzat eta gizadiarentzat obeagoa beŕiz arotz edo igeltzeru edo eŕementari edo nekazari yayua izatea.

Beste gauza bat oraindik. Jakintza gayetarako gauza diranak ere ez dute kaŕera guztietarako balio izaten, eta aita ingenierua ba'da ere ba'leike semeak margolari bikañen azia bere barnean izatea.

Igeŕiko zayo txikitatik ere Zenbakizti 'ko asmakizunak baño txakuŕak, zaldiak, etxeak, zugatzak, mendiak eta abaŕ dibujatzeko gogo ta tankera obea izango du ta.

AŔITOKIETA.

¡Kabi berriya!

NERE LAGUN ANTXIA'RI

Udabeŕiaren jazkera edeŕaz
Alaitzen dira txoriak,
Biaŕko egunai begiratuta
Geŕtatzen dute kabiak;
Beren barneko ametsak dauke
Kabi goxoan jaŕiak
Zugatz ganetik abestudezan
Kabi oŕtako umiak.

Zoriontsuak ik bezelaxe
Txori aŕayaz batian
Gertatzendunak kabi edeŕa
Bizi zaitezte on pakian
Zoriontsuak biaŕko egunez
Kabi oŕtako loreak
Abesiari zuzendu ezkero
Beren biziko nekeak.

Itxaropena, atsegin goxo
Euki bezate, gaurkoan
Jaunaren bidez batu diranak
Maitasunaren besoan
Jaungoikua ta Legezaŕ onak,
Zuen biziko aŕgio,
Bide ontatik donetsi dezan
Maitasunezko kabia.

ALBERDI.

Aretxabaleta.

ARRASATE

EGUALDIA.—Egun bero edeŕak egiten ditu aspaldian, eta soroak urez aseta orain go eguzki galdatan eskuaz eaŕita lez datoz inguruetan. Mailuki gozorik jaten degu; lasteŕ kereixak ere bai. Olaxe jaŕaituko al du. Ibaiko ura epel-epel dago-ta, pozik ibiltzen gera igari mutikoak.

JESU'REN BIOTZA. — Eŕi guztia apainduta egon zan eguakoitzean. Aita Beristain jesulagunak egin ditu aste osoan euskerazko itzaldiak goiz ta aŕatsalde, ta entzule asko izan ditu. Eguakoitz edo ostiralean izan zuten amabi urte bete dituen nexka mutikoak beren jaunartze nagusia. Beŕoge ta amaika neskatila ta beŕogeta iru mutiko batu ziran, eleizkizun polita egin zuten ta orduan sartu ziran Miren-aŕabetan eta luistaŕetan.

LUISTAŔAK.—Datoŕen igandean (ilak 17) ospatuko dute beren Zaindariaren jai -eguna. Iragarkiak atera dituzte ta, beste urteetan bezela, eleizkizun edeŕak, itzaldiak, txiŕingolari-laisteŕketak eta danak izango dituzte. Ori izaten da urteero San Juan-jaien asiera bezela.

SAN JUANAK.—Eŕiko jaiak ere gaiñean ditugu. Aurten iñoiz baiño jai geiago ta aundiagoak omen dira. Fubol-zelaian asi dira zezen-plaza jasotzen; ainbeste urtetan ez degu ikusi ta aurten zezenketak eta soka-muturak eta guztiak seguru be; pelotaketak, iru musika-banda, sekuŕakoak...

EZKONTZA. — Ostegunean Eriz'taŕ Miren ezkondu zan Orduñataŕ batekin. Zoriona.

BATAIOAK.—Lau bataiatu ziran joan dan igandean: aien aŕtean gure ikastolako Perico'ren aŕebatxo beŕia Aiastui eta Lizaŕalde'taŕ Arantzazu. Zorionak.

ERIOTZA.—Donostian aŕasatetaŕ emakume on elizkoia il da bat-batean. Eŕesusta'taŕ doña Juana. (G. B.). Beartsuentzako ongile aundia zan ta asko maŕte zuan eŕiak. Datoŕen larunbatean dira aren gogoaren aldeko iletak.

KORUETA'KO jaietara talde aundiak joan ziran atzo mendian gora. Eliza ta kanpo egun zoragaŕia emanik etoŕi ere.

Datoŕen aste aŕte, Jaungoikoak gura ba dau.

IKASLE.

ARRATZUA

"Aŕatzu'ko Trumoya" il zanezkero, aren lekube betetan emen nayatoŕtzube "Euzkel-Atal" onetara.

Lenengo neure zeregiñik aundijena, irakuŕle gustijoi eskaŕak emotia da.

Eukeni'ren erijotzea zala-ta B. B. Batzaŕa'k bidaldu eban idazkija aŕtu zan. Eta aren sendijak, idazki onen biŕaŕtez, eskeŕak emoten dautsaz.

"Ibai-Gane" euzkel-idazle aŕgijak be, Eukeni'ren erijotzea zala-ta, idazki samuŕak idatzi ebazan, "Euzko" ta EUZKADI izpaŕingijetan idatzi be.

Idazkijok ziran samuŕak ziralako, negaŕ malkorik asko begijetaratu euskubezan.

Idazki areŕako itz samuŕen oyartzuna Eukeni zanaren gogua aurkitzen dan donokiraño be elduko zala uste dot, eta andixik eskaŕtuko ebazala be.

"Aŕatzu'ko Trumoya" eritxon euzkel -idazlia, eŕi onetan jel-aŕdez lanik geyen egin ebana zala esaten dabe, ta ixan be alantxe dala dirudi.

Bera ixan zan, ba, Aŕatzu'n, abeŕtzaletasuna erein ebana.

Eta orain, arek alde egin daunezkero, batek baño geyagok uste ixango dau emen go abeŕtzaletasunak be alde egin dabeŕa.

Baña ez. Abeŕtzale bat juaten ba-da, aren lekura beste bat etoŕiko da.

Eta olan, Aŕatzu'n abeŕtzaletasuna geŕubaz juango da.

Goyan bego, Eukeni. Eta gu, Goikua'k deitzen dauskun biŕaŕtian, emen beyan, geure Euzkadi gaxua jauntxuben aŕtetik azkatuteko alegiñak-alegin egiŕen.

Aŕatzu'ko Trumoi-ordia.

ABADIANO

AGUŔTU. — Bergara'tik etoŕiŕa emen aguŕtu dogu Uriguen'daŕ Argiren neskatilea. Bilbao'tik etoŕiŕa, Iŕuŕiaga-etxebaŕia 'taŕ Ilaren, eta Itxauŕaundieta'taŕ Bediŕe bere seme Emili'rekin.

Zorijonak gustijoi.

AXPE'N.—Igazi dan igandian, Durango ta Abadiano'ko abeŕtzaliak eralduta, uri txiki onetan jai edeŕ bat egin zan.

Jai ori, bertako abeŕtzaliei omena egiŕeko egin zan, azkenengo auteskundietan ixan eben garaitzeagatik egin be.

Axpetaŕak Gorostiaga'taŕ Korneli'ren etxian, Batzoki poliŕa be ba-dabe. Bere askundia, baŕiz, datoŕen ilian ixango dalakua diñue.

Egun oŕetan, (J. L.), abadiñotaŕ gustijok an gara.

EZ BIAŔA. — Bere biaŕetik etoŕaŕa, Usabel'daŕ Luki jausi egin zan, eta min aŕtu.

Len bait len osatuko al da, guk opa dautsaguna orixe da-ta.

AŔTIXAŔA.

Lankide gasteagoe

Lagundu: Lenbizi alaiki lanari ekin de zaten. Lenengo egunetan naiz lantegiar naiz eskolan zer egin ere ez dute jakin go; beŕiak bai dira. Zuetako batek, uŕe ratu ta laguntzen badie, bai zoriona ta la guntza atsegiña! Etor-beŕiekin beti orix egin beaŕ zenduke. Jakin dezatela, lagun tza beaŕik badute, zu lagun ona izang zaituela, beren ez jakiñetan zeroŕek ira katsiko diezula, zeuri eskeŕak ez dutel ez-beaŕ aundirik izango. Batez ere, jakii dezatela an bertan daukatela biotz-berok lagun on bat.

Ez ŕan-irakasle bakaŕik izan; onbide ere, zugandik ikasi dezateke. Ikus-eraz garbi etzerala nolanaiko langilea, zintzoa onezkoa, garbia, alaia, lankoŕa, kristau berezia baizik. Euren auŕean iñoiz ere e egoki ez dan itzik, ez egokera zakaŕik, e iraiñik, ez bekaizkeri aurpegirik. Zu iku siaz, euren kolkorako esan dezatela: "Lan -soñeko txiro baten azpian biotz edeŕ ba egon diteket. Langile ori gizon osoa dek"

Zertxo bat geiago egin dezakezu. Zure ikasbideak eraginda, izan diteke begi aun diz zuri begiratzea. Aldi on bat oraintxe eskuratu zaizu; ez alpeŕik galdu. Zeure zindotasunak eman dizun garaipena la guntzat artuta, bidali bati dagokion erara gizarte ta bazkun txaŕetatik aldendu ti Kristau Euzko-Langileen Alkaŕtasunekuol etzeratela besteen antzekoak; zintzoak et zuzenak baizik.

Ola-lanetan aldirik eza badezu, olatik irtetzekoan, zeure Alkaŕtasuneko oitura izakera, araundi ta besteak azaldu. Ez keŕ-aŕkaŕtasunetara jotzen badute, galduak dira.

Guzi au eginda, emaitza edeŕak loŕtuko dituzu.

Gau-ikastola

Ni gauero ikastolara joaten naiz; lan -arazoetan auŕartu nai bai det. Langile izentatua izateko asmo det; neure ogibidean onenetakoa. Nik lan egiŕen ondo jakin nai det."

Ori dion langilea ez da nolanaiko langilea izango. Asmo bikain au, langile ona izateko gogoan euki beaŕ dezu. Antziñako langile batzaŕetan irakasle izan baño len, lan-buru izan beaŕa zuten.

Ez uste bapatean goraño igoko zerala. Lan asko beaŕ dun gauzak saneuŕia ere aundia, esan oi danez. Badakit ez dala atsegingaŕia, eguna lanean igaro ondoren, ikastoletako jarlekuan exeri, ta adimena ta oroimena erabili beaŕa. Soña eskulanekin nekatua ez euki-aŕen, ez da atsegin buru-lan ori. Baño buru nekatze oŕek badituzu langileentzat emari edeŕak. Batzuk gizonago egiten ditu, besteak zentsundunago lan egiten dute. Lanetik onura geiago ateratzen ikasi dutenak ere badira; lagunekin geiago egitea lortu dutenak ere bai. Bai poza oŕelakoren bat iritxi badezu! Betor zorioneko neke ori!

Otara jaŕi. Benetan zaiatu, ikasi dituzun auŕerapenak zeure ogi-bidean ezartzen. Gauŕ beŕiak arkitu naiak, ikasi naia: orixe beaŕ dezu. Bilduŕike irakatsi dezateken gizon edo idaztiei galdetu; batez ere, oarpen edo kontsejuaren bilduŕik ez.

Gero lan guziak onetsi ditzazula bere aintzarako ta lankideen gaizkatzerako artu dezazkizula Jaungoikoari otoi egin. Zeure besoei indaŕa ta zure soñari osasuna damaion Jaungoiko berak gogo-indaŕa dazaizuke. Beragandik alde, ezer ere ez; Berarekin nai dezuna.

"Juana! Zure laguntzaren beaŕean naiz."

Emakumien abertzaletasuna

Mayetz-Paskuetan Olaeta baseŕiko eŕomerijak ixaten dira, eta ŕagun pilo edeŕa bertaratu giñian. Bidian giñoyazala entzuten genduzan jentien uyijak eta zantzuak.

Eldu giñian, eta bertako taberna baŕiko pelota-tokijan inpernuko auspua joten ziarduen, eta jente guztia aŕastaka, dantza zikiñian. Zelairatu giñian, eta an be bardin; auspu-soñua, baña txistu edeŕa be an eguan.

Baña txistua itxi alderdi batera eta an be danak "lotuan" jotaldi bakotxian txori andija ordainduten zala, eta pozik pagau be. Eta au zan negargaŕija: geure txistuari kasurik egin barik eta ezer pagau biaŕik ez ixanaŕen, alde batera gure txistu-soñua.

Emakumiok: ori ez dozue egin biaŕ. Gure txistuari jaramonik egin barik baŕtziu zikiñian asi!... Ez oŕakorik egin emakumiok.

Eta Emakume-Abeŕtzale-Batza'kuak ba 'zarie, gitxiago.

卐 卐 卐

Itxi alderdi baten geure txistu edeŕak, eta dantza lotuan asmo andijagaz egin. Orixe da, ba, gauŕ jazoten yakena emakumiai; eta ori ezta abeŕijarentzako maitasuna. Ezta ori bakaŕik okeŕ egiten dabena. Eŕderaz be, geruago ta geyago egiten dabe.

Abeŕija maŕatu. Euzkeria be bai, eta geure oitura garbi guztijak. Oŕelan ixango zarie, ba, benetako emakume abeŕtzale zintzuak.

Maŕatu Abeŕija,
maŕatu Euzkadi;
emakume garbi ta
onak ixan beti.

KAXAŔANKA.

Deunen bixitza

Palben deuna, ziñopa (1)

Aipatua izan zan aintziña deun onen seu dia, bai aundizki-jatoŕiegatik, baita be gizartean irabazi eban entzute ta izen onagatik. Deun onen alabak ziran Bibene ta Demetire neskutz eta ziñopa deunak. Bere emaztea be, sinismena aldeztuz il zan. Beraz, ziñopa izan zan a be.

Palben'en gaztearoko goraberarik ez dakigu; ezta be aren auŕekoenik. Dakigun pitiña da Eŕoma'koak ziŕala jatoŕiz. Eŕoma'ko jaurle autu eben Palben. Arlo onetan kaisaŕare neta eŕiaren gogora jokatu zan, benetan. Biotzbera ta eŕukioŕa zan eta beartsuen eta txiroen laguntzale maitalea.

Kostantzi zan garai aretan Sorkaldeko agintari. Geroxeago, baŕiz, Makentzi'ren eriotz-ostean, kaisaŕ izan zan. Ariotaŕ puŕukatua zan, ordea, kaisaŕ au ta bere agintepeko biztanle guztiak ariotaŕ biurtzea otu yakon. Ondorengoz, kistaŕen arerio zitaŕ egin zan.

Jazarpenaren erasoa asi zanean, zelan ezkutatu Palben zan lako gizon ospetsuak bere egite onek eta bere kistaŕtasuna? Bigunki ta adiskide antzean makurtu nai izan eban kaisaŕak, lenengoz. Eskeinte ta laguntzaren bidez, alegia. Abeŕikakoa izan zan, oŕatio, kaisaŕaren maltzurkeria Palben'en gogoa irabazteko. Ez aŕenak, ez eskeintea eta ez zemayak, ez eben bigundu aren gogoa ta zutitasuna. Au zala-ta, amaŕuz ezin egikeala ezer lortu igaŕi ebanean, bere agintaritza kendu eutson kaisaŕak. Beraz, txiro ta ezeragun bizitzera beartu eban Kisto'ri eutson maitasun zintzoak.

Julen sinestegaldua izan zan Kostantzi 'ren ondorengo kaisaŕa. Agintzbidean jaŕi zaneko, goŕotoak aizatuta, gartsu ekin eutson kistaŕen aurka. Azpikoaz gain irauli ta zuzitu beaŕ ebala zirudin dana. Aren agindupean jazarpen izugaŕiak jasan bear izan zituen kistaŕak.

Oñazeak, urkamendiak, eriotza ta odol -ixurtzea besteri etzan ikusten Julen ankeŕaren garayan. Jainkoaizunak ziran nagusi. Kisto, baŕiz, azpiratua. Kisto'ren jaraitzaleak ostikoatuak eta jazartuak. Inpernuko deabrua agertzen zan nunai garale. Eŕoma'ko uria izan zan zigortuena ta jazartuena. Eta ango kistaŕen aŕtean, aundizkiak bereziki. Sendi aberats asko urten ziran jazarpenetik ondasunik gabe beartsu ta txiro.

Ondo ekian Palben'ek ez eukala iñolaz be ekaitzaldi onetatik igesbiderik; ez eutsoela parkatuko kistaŕen arerioak. Lenengoz bai zirudin ez ikusiena egiela. Bakealdi aretan jazartuen eta nekatuen eusle ta laguntzale izan zan. Etxez etxe ibiltzen zan Palben, kistaŕak adoretzen eta sutzen. Maiz jasten zan Eŕoma'ko uripen kistaŕak lurpean egin zituen gordetokietara.

Ezin zegikean Palben'ek alan luzaroan jaŕai. Berezla oartu eben arerioak arek egian lana ta kaisaŕari zitalki salatu eben. Esan eutsoen kaisaŕari lotsagaŕia zala, agian, len jauŕle izandako gizona kaisaŕaren aginduak ezesten ibiltzea orain. Biziro asaŕatu zan kaisaŕa ta gizon zintzoari ezertariko begiramenik gorde barik, indaŕez atxilotzeko agindu eban, ta oñazez eta zigoŕez eta zartakoz Kisto'ren sinismenetik alderatzeko aren gogoa. Zigoŕera ez makurtzekotan, baŕiz, iltzeko zartaka bizian. Arin eta pozkiro bete eban Apornian gizon ankeŕak kaisaŕaren agindua. Atxilotu eban eta burdin-katez lotuta espetxe ilun batera sartu eban.

Epailariarengana eroan eban gero. Baña kistaŕ zintzo ta kementsuak zeazki erantzun eutsen epaikariak zuzendu eutsozan galdeai. Erantzun eutson bere aintzarik aundiena zala Kisto'ren autorle ta jaŕaitzale izatea ta ezergatik be ez ebala aren izena ezetsiko. Areago oraindio, pozik eta zoriontsu emongo leukiala bere bizia Kisto'ren sinismena aldeztuz eta zanetako odola azkenengo tantoraño ixuri be. Epaikariak agindu eban ordun jatoŕiak emotson malatik lotsagaŕiro erasteko, ikusle guztien auŕean, gizona ta eukazan aintzagailuak be kentzeko ta jopu zarpil baten gisan erabiltzeko auŕerantzean.

Garai atako zigoŕik lotsagaŕienetakoa zan burdin goŕituz norbait bakokia eŕetzea. Gaizkilerik puŕukatuenai ezartzen yaken zigoŕa zan, ba, au. Palben'ek, baña, iŕibaŕea ezpanetan ebala, jasan eban zigoŕ ikaragaŕia. Gero aŕtean eukazan ondasunak kendu ta, bizitzeko lain be itxi barik, Aquapendente deitxon tokira eroan eben, an auŕtasunez il zedin.

Emazte maitea ta alaba samuŕak an itxi beaŕak sortu eutson naigaberik aundiena, bere beaŕa izango ebelakoan. Baña areik egiazko Jaungoikoaren sinismenean zutik eta adoretsu iraun eben eta, andik geroxeago, Kisto Jaungoikotzat autortuz, irabazi eben, eriotzaren bidez, ziñopaen buruntza edeŕa.

Andik bereala il zan Palben deuna be. Ainbesterañokoak izan ziran erbestean jasan zitun uŕitasunak eta zigoŕak.

A'TAŔ T.

(1) Lotazila-22'gaŕen egunari dagokio deun au.

Joyería - Platería - Relojería
CONSTRUCCION
Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10 — DONOSTIA

ARIETA BITXIZALEA

Bitxitegia - Zilarteria - Gabeukaztegia
BITXIAK EGIN
ETA BERRITZEN DITU
-: Urritizkiña, 13.777 :-

EIZARA'KO SUIZKILLU (ESCOPETA) OLEA
L. LEGARISTI Y COMPAÑIA
SORALUZE (Placencia de las Armas) — GIPUZKOA

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros 5, 3.º, DONOSTIA

Irakurri EUZKADI